

IDAZLEEN ADINA

Zenbat urte behar da nobela bat idazteko?

Ez, goiko izenburuan ez gara idazteko prozesuaz ari, nobela ontzean idazleak duen adinaz baizik. Mila aldiz entzun dugu eleberriak adin bat duela, heldutasuna behar dela genero horretan murgiltzeko, literaturarako dohainaz jantzitako zenbait jenio albo batera utzita. 50 urte baino gehiagoko aldea duten Ramiro Pinilla eta Harkaitz Canoren eskutik abiatu gara idazleen adinari buruzko uste zabaldu horren egiak eta gezurrak aurkitzera.

UNAI BREA

HELDUTASUNAREN GENERO izendatua, ezin omen daiteke nobela onik sortu 40 urte bete arte, edozein arauk behar dituen salbuespenak salbuespen. Batzuentzat mito hutsa da eleberrigintza eta adina lotzen dituen, beste batzuentzat baieztapenak badu funtsik. Ramiro Pinillak, 40 urte dagoeneko bi aldiz bete dituen idazleak, aitortu egiten du gaztarroan nobela onak egiteko gaitasuna izan daitekeela, baina ez du uste egile berak nobela on bat baino gehiago idatz dezakeenik gazte den artean. “Eta betiere, autobiografikoa izango da”, dio getxoztarrak, “nobela bat elementu askorekin osatzen da; 25-30 urteko batek bizipen nahikoa izan badu, eta hori idatziz emateko dohainak baditu, nobela ona egin dezake. Baina bigarrenerako itxaron egin beharko du”.

Orain dela hilabete batzuk, Pinillak kontu hauei buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen Bilbon. Haren aldamenean, txanponaren beste aldea nonbait, Harkaitz Cano lasartearra zegoen, 32 urte besterik eduki ez arren literaturara inola ere heldu berria ez den gizona. Gaztearen ahotsaz eskarmentua mintzo. Idazle hasiberriaren ajeez jardutean, berarentzat iraganeko kontuak direla igartzen zaio Canori. Nolanahi, ez ditu ajeok ukatzen.

“Gaztetan originaltasunak kezkatzen zaitu batez ere. Gero konturatzen zara hori baino inportanteagoa dela inguruko gauzei adi egoitea”. Lasartearraren ustez, badu azalpenik originaltasuna grial santu bihurtze horrek: lehenbiziko liburua idazten ari denarentzat, hori da bere bizitzako liburu bakarra. Den-dena hor jarri nahi izaten da, eta hori dateke gazteen

Ramiro Pinillak (ezkerrean), ez du uste idazle gazte batek nobela on bat baino gehiago idatz dezakeenik, “eta gainera autobiografikoa izango da ezinbestean”. Harkaitz Canoren ustez, originaltasunarenganako obsesioa da idazle hasiberrien bekaturik behinena.



ZALDI ERO



ALBERTO ELOSEGI

bekatuetakoa bat, alderdi ona ere badaukana: ondorengo lanetan –baleude– sarritan agertzen ez den pasioa du estreinakoak. “Idazle gazte baten bigarren liburua zailagoa da, baina era berean askatzaileagoa, dagoeneko ez delako zure apustu bakarra”. Konturatu bedi irakurlea Canok bigarren liburua idazteko gaitasuna aitortzen diela gazteei, Pinillak ez bezala. Eta azken oharra originaltasunaz: “Zer da artista XXI. mendean? Irizpide ona duen kleptomanoa”. Are gehiago Internet eskura dugunetik.

Ramiro Pinillaren ibilbideak badu zerikusirik horrekin. “Gaztaroa nobela poliziakoak eta *far west*-ekoak idazten eman ostean –bakarra argitaratu zidaten, besteak itzuli egiten zizkidaten–, 35 urterekin sentimenduei buruzko istorioa papereratzeari otu zitzaidan. Oso txarra izan zen”. Handik bi urtera, *Las ciegas hormigas* argitaratu zuen, bere nobelarik ospetsuenetakoa eta Nadal sariaren irabazlea. Zerk eragin zuen hain jauzi handia hain denbora laburrean?

“Bi liburu haien tartean Faulkner irakurtzen ibili nintzen, eta harrezkeroztik berebiziko garrantzia ematen diot idazlea bakoitzak bere hizkera garatzeari”. *Las ciegas hormigas*-en hizkerak, hain justu, Faulknerrena zuen oinarri. “Ez bazara gai zeure hizkera asmatzeko –eta hori benetan zaila da–, inspirazioa bilatu behar duzu. Kopiatu, esan diezaiogun”. Akabo gazteen originaltasun asmoak, baina ez dadila inolarritu: Pinillaren esanetan, ez dago kopiatzeagatik zertan kezkatu, ekinaren ekinez azalera aterako baita norberaren benetako hizkera.

Irudimenak badu adinik?

Eleberri egileek irudimena behar du, eta Pinillaren iritziz, hura lantzea denbora kontua da halaber. Horra 40 urtetik beherako nobela sortzaile gutxi egotea azalduko lukeen arrazoietako bat. Ez ditzagun nahastu, hala ere, benetako irudimena eta umeei



Irudian, Raymond Radiguet, 1903an jaioa eta hogeitau urte geroago zendua. Astia izan zuen nobela bi idazteko, horietan ezagunena *Deabrua gorputzean*, Ramiro Pinillak aipatzen dituen eleberri autobiografikoen adibide bikaina. 30 urte bete aurretik guztiz nobela onak egin dituzten beste idazle batzuen izenak gogorarazi nahi izan dizkigu Harkaitz Canok: Italo Calvino (*Il sentiero dei nidi di ragno*), Mario Vargas Llosa (*La ciudad de los perros*)... Salbuespenak beti salbuespen, eta kasu honetan askotxo.

egotzi ohi zaien izen bereko ezaugarria, ohartarazten gaitu Pinillak. Umeena fantasia da, errealitatetik kanpoko kontuak, nobelak egiteko balio ez dutenak. “Irudimena beste zerbait da, eta norberak bizi izan duenarekin harremana du, bizi ahala gauzak irudikatzen baikoaz”.

Idaztea ofizioa da, eta ofizio guztiak bezala, zenbat eta gehiago egin orduan eta hobeto. Horretan bat datoz Pinilla, Cano eta mundu guztia, “nahiz eta 19 urte dituzunean oso argi edukitzen ez den”, Lasartekoaren esanetan. Jon Kortazar literatur kritikoaren ustez, urtetan aurrera egin ahala idazteko era finkatu egiten da, solidifikatu, “baina garrantzitsuena ez da hori, baizik eta zer neurritan lortzen duen idazleak irakurleen fideltasuna gordetzea eta gehiago erakartzea. Horretan adinak ez du zerikusi handirik”. Finean, nobelak idazteko ahalmena edadearekin lotzea topikoa da Kortazarrentzat.

Gaztetetasunak eragindako bekatu gehiago aipa genitzake. Esaterako, eta Ramiro Pinillari jaramon egitera, narratzailea orojakilea izatea, edota pertsonaia desberdinen barruan sartzeko ezintasuna, “gazteak garenean ‘ni’-ak indar handia duelako”. Ustezko abantailak, aldiz, ez bide dira hainbestekoak: “Espontaneitatea, gaztaroko espontaneitate sakratu hori, berbarako, gogor lan eginez ere lor dateke testu batean”. Estetizismoarenganako grina ere aipatu du Getxokoak, eta bat dator Harkaitz Cano: “Hasiberrian gehiago liluratzen zaituzte esaldi borobilek, Julio Cortazarrek eta Oscar Wilde bezala idatzi nahi duzu, Cortazar eta Wilde estetika hutsa baino askoz gehiago direla konturatu gabe”. Edadearekin dator –hala diote orrialdeotan lagundu diguten idazle biek– esaldi ustez ederra idatzi eta berehala ezabatzea. Heldutasunak, idazte kontuetan behintzat, ez omen du loramendurik behar. ■

AQUARIUM

Karlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel: 943 44 00 99 • aquariumss@aquariumss.com • web orria: www.aquariumss.com